

kulunkaz seaska, pozik etxe dana...
 Esna nintzan noizpait mundura. An, alboan,
 aurpegi eder bat ifipar gozoan...
 Ama zan. Geroztik, banaturik gaude;
 bañan gogoz-gogo beti alkar-kide.
 Itzal bizi batek argi soin oneri
 —amaren itzalak beti argi neri—;
 muin-muiñetako indar —maitasun ernakor—
 berak begiz-begi, xamur, barnean sor.

Oraindik gogoan aren len-esanak,
 biotzetik jaulki-txera ta laztanak.
 Xamur —ona bear-ta— biotz ondoan
 igurtzi sarkoñez, eraltzen ninduan;
 berak gizon-antzo indartu ni lerdan,
 berak —zeru-bide— sendotu Sinismen...

Odolez amari loturik ba'nago,
 gogoz eta oldez ainbat lotuago.

Amari begira
 —amaren begira—

nork ez biotz aundi?
 Iñor bada-ta, ama Jaunaren iduri!

.....

Amaren ametsa uruti-miñean...
 Ez daukat uruti. Emen: muin-muñean.

EĪROMAN IRIGOIEN

Altza'ko sendagile jator onek be ez dausku erbal adi-erazten bere biotz ondo piña. Ez dogu oraindik ezagun euskal-sailean, baiña neurtitz onetan ezti-ulert-efez ta txukun agiri da. Beraz, onelako lan goxoak egiteko ba-dau zura, ta zura euki ezkeru, lanabasak egin al. Begiz ugari.

927. NIK ZER EZ EGIN, ZER EZ EMAN...?

I

Aurtxo txiki bat nintzala Jaunak	Danok bere izen goxoa beti
Ama zerura eraman,	Ezpain eta biotzetan:
Ta zenbat maite nindun, tamalez,	Estu-aldian laguntza eske,
Jakiterik ez det izan.	Pozgañi zorionean.
Itz eder, xamur, kuñunak bada,	Nik ere ba-nun maite ninduna...
«Ama» lenendik luñean.	Bere irudirik ez nigan...
Seaskan asi ta il arteraño,	Amaren laztan bategatik, nik
Gora-bera guzietan,	Zer ez egin, zer ez eman...?

II

Irakasle ta lagun... —ama zer
 Ez, bizitzako bidean?—:
 Zenbat otoitz ta kontu ikasiak
 Bere altzo epelean...
 Lenengo aldiz Jauna artu bear,
 Eta an ama aldamenean
 —Geroko musu ura jasota
 Dago oraindik biotzean—.
 Egundo aztu litezke, etxetik
 Erbestetu beaŕean
 Amaren malko ta besarkada
 Ta «aguŕak» ate auŕean...?
 Amaren babes goxoa gabe
 Azi nintzan, ilun-pean...
 Amaren ipui bategatik, nik
 Zer ez egin, zer ez eman...?

III

Ama oraindik bizi dutenak
 Etxeratzen diranean,
 Zenbat naigabe uzten dituzte
 Bera atean ikustean...
 Ezagutu-ta, il ba'zaiote...
 Gaizki diot, nere ustean
 Ezagutu dan ama egundo
 Iltzen ez da semeagan:
 Biotzez deitzen diotela, antxe
 Aurkezten da bat-batetan,
 Ta len bezela laguntzen die
 Neke ta poz-aldietan.
 Nik zerura arte ezin ikusi...
 Zer ustasun bitartean!
 Zu ikusteaŕen, ene ama, nik
 Zer ez egin, zer ez eman...?

IV

Seme ta alaba kutun-kutunak:
 Auŕak zeraten artean
 Jakiterik ez dezute zenbat
 Ontasun dagon amagan.
 Nik ere ez orain arte askorik
 Nerea nolakoa zan.
 Orain bai, orain zuen amatxo
 Zuekin dabilenean,

Begiak argi ta arpegia alai
 Musuka ta jolasean,
 Seaska auŕean egun eta gau
 Sukaŕak menderatzean...
 Pixka-banaka ikasia det
 Zenbat maitatzen ninduan.
 Ama luzaro dezazuten, nik
 Zer ez egin, zer ez eman...?

EIZMENDI'tar IÑAKI, «BASARI»

Eŕezil'en jaioa, 1913-XI-27'an. Zazpi urtetik, ofaitiño, Zarautz'en bizi da. Bertsolari jatoŕa, noski, ta gaur danik sonatuena. Lekuona jaunak diñoanez, era bitakoak dira gure bertsolariak: eskolatuak eta eskolagabeak. Basari eskolatuetakoa dogu, Afese-Beitia, Ipaŕagiŕe, Peŕo Mari Otaño, Enbeita ta antzekoak lez. Bere bertsoak aldizkari guztietan agiri dira. Ba-ditu liburu bi argitaratuak *Atano III*, bere edestia bertsoan (Zarautz, 1949), ta *Basari'ren Bertso-sorta* (Zarautz, 1950).

928. ZORIONEKO UDABEŔI

Kanta bezate bertsolariak
 guzien atsegingaŕi.
 Uŕatu bitez bere gorantzan
 milaka euskal eztaŕi.

Azaldu zera, zorionean,
 maite, kutun, Udabeŕi.
 Zure maitale itxu geranok:
 biotzez ongi etoŕi!